

KUKUA EUSKAL HERRIAN

Ekaitz Goikoetxea

Beasain. 14 urte

1

Ni naiz hegazti igokaria
ahoa beti irria,
sabela marra zuri ta grisez
zeinen erakargarria,
hogeita hamabi zentimetro dut
paguso baten neurria,
nire kantu iturria,
albiste eta berria,
asez zuen egarria,
nire abesti berezia da
deituraren oinarria,
zorionaren mezulari den
txoriño zoragarria. (bis)

2

Migraria naiz eta hegaldi
zuzeneko gainera,
negua, Kenia eta Ugandan
aurrera eta atzera,
Euskal Herrira hurreratzen naiz
martxoan azken aldera,
baso edo oihanera,
bideratuz pausakera,

badaukagu aukera,
zuen altzora inguratzen naiz
udaberriaz batera,
errainu epel eta gozoak
ekarriz zuen artera. (bis)

3

Oraingo honetan nik sabelari
ezarri diot arreta,
ta hau da nire eguneroko
menu edo errezeta,
lehen platerean, lorerik lore
ibiltzen den tximeleta,
moko zorrotza tarteka,
eginaz eltxo bilketa,
ahoa erdi beteta,
mokau onena pinuditako
har iletsua da eta,
baserritarrei errezten diet
«insignisen» garbiketa. (bis)

4

Pagaditako hostotxoetan
aurkitzen naiz kokatua,
lau haizetara zabal dezadan
nire ku-ku hots kantua,
hemen kantatu eta han gorde
martingala hautatua,
ezkutaketa jokua,

abestuz ku-ku ku-kua
adaxkekin babestua,
hegaztigoa ta ingurua
dadukat asaldatua,
denek diote, nun ote dago
txori madarikatua? (bis)

5

Erne eta so, txantxangorria
habiatik noiz irtengo zai,
txio-txioka ekin diezaion
gaur duen ibilaldiai.
Bere habian erruten ditut
orduan arraultzak lasai,
triliri eta tralarai,
azkenean izan naiz gai,
ibiltzeagatik ernai,
papargorriak berotzen ditu
kumeak jaio ere bai,
ta bitartean ni zoriona
zabaltzen ari naiz nonahi. (bis)

6

Lehendabiziko kuku hotsekin
bi eskuak arin-arin,
patrikaraino doan bidea
guztiek ohi dute egin,
barnean duten kezka bakan ta
itxaropen soilarekin,

erritoak eginez fin,
hontan ipiniz hainbat din,
gogo, ganora eta grin,
ia toporik egiten duten
hogerlekoren batekin,
urtebetea zoriontsu ta
oparoa izan dadin. (bis)

7

Kilometroak, Ibilaldia,
eta euskaraz Araba,
euskaran alde nafar aldean
Nafarroa Oinez bada,
Euskal hizkuntza zuzpertuko da
Oionetik Baionara,
igaroaz hainbat traba,
garaipenaren islada,
heldu gara helmugara,
kontuak-kontu, gauzak horrela,
hontara iristen gara,
kukuok ku-ku hizkuntza dugu
ta euskaldunek euskara. (bis)

8

Nire ku-ku hots miresgarriaz
hainbat gauz aldarrikatu,
nire mezu ta esaerekin
ingurua dut alaitu,
azken mezua airean utziz

kantuan nahi dut amaitu,
nahiz oraindik kanta ku-ku,
San Pedro da ailegatu,
behar zaituztet agurtu,
San Martzial bertan dadukat eta
geratuko bainaiz mutu,
besarkada bat Euskal Herria
itxaropentsu jarraitu. (bis)